

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****AMURRIOKO UDALA****Arauz kanpo erroldatuta egoteagatik udalaren biztanle erroldan ofizioz baja emango zaiola jakinaraztea interesdunari, helbide ezezaguna baitu (espediente zk.: 16011P-48/2016)**

Administrazio egintzaren jakinaraztea. Interesduna: Khadijetou Omar Brahim.

Erabaki hau ezin izan zaio interesdunari jakinarazi, orain duen helbidea ezezaguna delako. Beraz, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 59.5 artikuluan ezartzen duena betetzeko, aurretik eta aukeran ALHAOn eta udal honetako iragarki taulan argitaratu ostean, iragarki hau BOEn argitaratuz jakinarazten zaio alkatearen 16/243P Ebazpena interesdunari. Hona hemen, hitzez hitz:

“2016ko abuztuaren 24an, ebazpena eman zen (16/243P Dekretua). Haren edukia, zuri dagokizunez, hau da:

M. L. M. A. k, Lexarraga plazako 4. zenbakiko 3. Cn etxebizitzaren alokairu kontratuaren titularrak, 2016ko abuztuaren 8an aurkeztutako idazkiaren bidez udalari jakinarazi dio Khadijetou Omar Brahim biztanleen udal erroldan arauz kanpo erroldatuta dagoela, pertsona hori ez baita aipatutako etxean bizi eta, hortaz, ez ditu betetzen Biztanle eta Lurralde Mugei buruzko Arautegiaren 54. eta 68. artikuluetan xedatutakoak. Arautegi hori uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onartu eta abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen.

Ikusirik udaltzainek horretarako egindako txostena, ondorioztatzen da pertsona hori ez dela bizi adierazitako helbide horretan.

Bat etorritz Arautegi horren 72. artikuluekin eta Estatistikako Institutu Nazionalaren lehendakariak eta Eskumenak Autonomia Erkidegoekin eta Toki Erakundeekin Koordinatzeko zuzendari nagusiak 2015eko urtarrilaren 30ean elkarrekin eman zuten Ebazpenarekin, zeinaren bidez jarraibide teknikoak ematen baitzaizkie udalei udal erroldaren kudeaketari buruz, eta bat etorritz zehazki arauz kanpoko inskripzioen bajei buruzko idatz zatiarekin eta aplikazio orokor eta bidezkoa dagokion gainerako legediarekin, alkate honek, legez esleituak dituen ahalmenak erabiliz, honako hau xedatzen du:

Lehenengoa. Aurkeztutako eskaera izapidetzeko onartzea, eta espedientea abiaraztea ofizioz, ondoren aipatzen den pertsona honi baja emateko Amurrioko Udalaren biztanle erroldan, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik:

IZEN-ABIZENAK:	AGIRIA
Khadijetou Omar Brahim	X-6879309-D

Bigarrena. Interesdunari ebazpen hau jakinaraztea udalerrri honetan izan duen azken helbide ezagunean, hamabost eguneko epean alegatu eta egoki jotzen dituen agiriak eta frogak aurkez ditzan, udalaren biztanle erroldan zuzen erroldatuta dagoela egiaztatzeko, edo erroldan duen egoera erregularizatzeko, udal honi jakinaraziz helbidea aldatu duela edo egun zein udalerritan bizi den.

Alkateak agindu eta izenpetzen du. Amurrio, 2016ko abuztuaren 24a. Behin-behineko idazkari naizen aldetik, fede ematen dut.

Alkatearen eta behin-behineko idazkariaren izenpeak eta errubrikak, biak irakurtezinak.
Jakin dezazun eta dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten dizut.”

Amurrio, 2016ko irailaren 12a
Alkate-lehendakaria
JOSUNE IRABIEN MARIGORTA